

Udal talde politikoaren iritzia



ETXEBIZITZAREKIN KONPROMETITUAK

Benetako konpromisoa daukagu, Getxoko Udal hasten eta garatzen ari den benetako ekintza eta proiektuetan islatzen dena, EAJ-PNVren eta PSE-EEren arteko akordioari esker, eta bi alderdiok udaleko oposizioko beste alderdi batzuekin landu dituzten, landu ditugun, babesei esker aurrera ateratzen dena.

Alde batetik, etxebizitza hutsen ikerlanaz ari gara, datozen hilabeteetan egingo dena, Getxon dauden etxebizitza hutsen gaineko informazio erreala eduki ahal izateko: etxebizitza hutsen kopurua eta baldintzak jakin nahi ditugu ikerlan horren bitartez, horrela etorkizunerako estrategia eta proposamenak prestatu ahal izateko, etxebizitza eskuratzeko zailtasun ge-

hien dauzkaten kolektiboetako etxebizitza eskuratzeko errazteko helburuz. Jarduketa hori EAJ-PNVk eta PSE-EEK EH Bildurekin egindako akordiotik dator.

Baina ez da azken aldia etxebizitza kontuetan aurrera egiten ari den

proiektu garrantzitsu bakarra. Izan ere, azaroko osoko bilkuran, duela bi aste eskas, Ormazako hiri lurzorua- ren birdentsifikazioa onetsi da, kasu honetan gobernu taldearen eta PPren arteko akordioaren bitartez. Horri esker, garapen honetan, babes ofizialeko

116 etxebizitza sortu ahal dira, hiri izaerako parke berri eta garrantzitsu batekin batera.

Eta Getxoko etxebizitza babes-tuarekiko konpromisoaren beste erreferentzia erreal bat Iturribarrin eraikiko diren alokairuko 136 etxebizitzena da: etxebizitza hauek ere alderdien eta erakundearen akordioaren eta asmo onaren emaitza dira, zehazki, Getxoko Udalarena eta Eusko Jaurlaritzarena (VISESAREN bitartez).

Konpromisoak Getxoko bizilagunekin, betetzen direnak eta, batik bat, errealitate bihurtzen direnak, elkarriketaren, akordioaren eta denon onuraren aldeko apustua gauzatzeko xedea- rekin.



ETXEBIZITZA POLITIKA

Aurreko osoko bilkuran Hiri Antolaketaren Plangintza Orokorraren aldaketa puntuala onetsi genuen Ormazo eta Maidagan aldean. Aldaketa honi esker, eremu horretan eraikiko diren etxebizitzaren kopurua gehitu egingo da; etxebizitza horietatik 116 babes-tuak izango dira. Akordio honen bidez, duela zortzi urte inguru sozialistok jeltzaleekin adostu genuen etxebizitza plana garatzen segitzen dugu. Asmoa hiri izaerako lurzoruetan eta bakarrik hiri lurzoruan etxebizitza eraikitzea da, eta ez gehiegizko garapen zentzugabeak proposatzea, gaur egun oposizioan dagoen alderdien batek kement handiz defendatzen zuen bezala. Kreditu gehigarri bat onetsi genuen, bestalde, 60.000 eurokoa, "Euskarak 365 egun" programa abiatzeko helburua duena, talde bakar baten oposizioarekin: PPrena, alegia. Haien esanetan, dagoeneko diru nahikoa (seguruenik gehiegizkoa, beraien ustez) erabiltzen da euskara sustatu eta ikasteko xedez. Jarrera koherentea Areatako metro geltokiaren inguruan izan dutenarekin, "Las Arenas" izena aldarrikatuz. Ziur aski, laster Zugazarteko etorbidearen izena aldatzeko eskatuko dute. Ze izen proposatuko lukete? "Avenida del Triunfo", beharbada? Mariano Rajoyk ulertuko luke.



GABONAK APARKALEKURIK GABE

Azaroko osoko bilkuran, Gabonetan Romoko ikastetxe publikoko patioa aparkaleku gisa irekitzea proposatu genuen, jakinik romotarrak aparkatzeko arazo handia izaten dutela garai honetan. Merkataria eta bizilagunentzat ekimen aproposa den arren, ez zen alderdirik atera gure alde, eta bakarrik geratu ginen Getxoko osoko bilkuran... Hala eta guztiz ere, espazio hori lortzeko borrokan jarraituko dugu; uste dugu bizilagunen eta elkarleen eskaera hau erabat lorgarria dela. @CsGetxo / herritarrak@getxo.eus / 944660291



ESTALITAKO GETXOLANDIA BEHAR DUGU



Getxoko alkateak erabaki du aurtengo Getxolandia estali gabe egongo dela. Berak bakarrik erabaki du hala, gainerako alderdiei galdetu gabe. Gure udalerriko klima eza- gututa, batik bat Gabonetan, euria ez bada, hotzegi da. Ezinezkoa da aurtengo txikienean ume parkeaz gozatzea baldin eta estali gabe leku batean egiten bada. Gure ustez, hain erabaki potoloa hartu baino lehen, beste aukera batzuk aztertu behar ziren: adibidez, kiroldegi edo eskola batera eramatea, edo karpa alboetako hormak gabe mantentzea, edukiera-arazoak ekiditeko.



EGUNEROKOAREN POLITIKA

Hilaren 27an azaroko osoko bilkura egin zen, eta hainbat gai eztabaidatu ziren. Besteak beste, PPri esker 1.150.000 euroko partida onetsi zen Getxo Antzokiarentzat; guztira 52 milioi dira honezkero, irekitzeko datarik aurreikusitako gabe. UPV/EHUr-ekin egindako akordioa berrizatu zen, beste 2 urterako, milioi bat eurotan. Langileria gaitetan, kezkatuta gaude, osoko bilkuran poliziako ofizial plaza bat sortzeko proposamena aurkeztu eta onetsi zelako, eta horretarako arazoia aldatu zelako batzorde go-

kiaren eta osoko bilkuraren artean, astebeteko aldearekin. Batzordean Poliziaren lege berriaz hitz egin ziguten, eta osoko bilkuran, berriz, esan ziguten indarrean dagoen legeri egokitu beharra zela arazoia, lege berria aipatu gabe. Beste ustekabe bat gobernu talde honen gardentasun eta argitasun falta dira, ez baitu koherentzia mantentzen honelako aldaketak egiteko arazoia azaltzerakoan. Modu berean, gure taldearen 2 mozio onestea lortu genuen: bata, frankismoaren biktimen memoria eta erre-

paraziorako, eta bestea, udal eraikin guztiak erabat irisgarriak izateko. Baina joan den asteko Getxoberritik gogorarazten digute oposizioaren proposamenak *testigantza*zkoak direla. Hau da, ez daukate konpromisorik osoko bilkurak gehiengoz erabakitzen duena betetzeko. Eta, seguruenik, 2018. urterako udal aurrekontuetan guk jokatuko dugun paperak garrantzi berdina izatea nahi izango dute, EAJ-PSEren politika eta gurea erabat ezberdinak baitira. Kontakutua: guk@getxo.eus / 944660290.



ORMAZA EZ DA KONPONBIDEA, ARAZOA BAIZIK

Udal gobernuak eta PPren akordioaren ondorioz, Ormazako 42. unitatean eraikiko da. Etxebizitza arazo aitzaki gisa erabiltzen duten arren sustatzen duten ereduak ez da soziala. Egingo dituzten etxebizitza horietatik erdia baino gutxiago, 117, babes ofizialekoak eta tasatuak izango dira (eta ez dakigu baten bat alokairura bideratuko den). Eraikiko duten gehiena, aldiz, 147, libre izango da. Jakin badakite baina, irtenbide horren gazteek Getxotik ihes egiten jarraituko dutela, eta honako galderak

datozkigu burura: Noiz arte jarraituko dute HAPO-a berrikusi gabe?



Noiz arte jarraituko dute aldaketa puntualen bidez 2001eko HAPO-a gauzatzeko?

Noiz arte merkatu librean salduko diren etxeen salmentaren sustatzaile izaten?

Noiz arte jarraituko dute ladrilloaren politikan murgilduta, bestelako etxebizitza alternatibetan sakondu barik, kudeaketa publikoaren bidez arazoari benetako erantzunik eman gabe? Noiz arte jarraituko dute herri honen ingurumen oreka suntsitzen, eremu berde irekiak zaindu barik?